## ACTUACIÓN DE BERTSOLARIS

**8 de noviembre, jueves. 20:00 h.**
Sala del Instituto de la Plaza de la Cruz

- **Bertsolaris:** Aitor Mendiluze, Nerea Ibarzabal, Eneko Lazkoz, Sustrai Colina, Miren Amuriza y Julen Zelaieta.
- **Presentadora:** Alaitz Rekondo

*Como viene siendo habitual, la programación de Bertsoaroa dará comienzo con una actuación de bertsolaris. Este año también serán bertsolaris de primer nivel los que subirán al escenario, jóvenes y veteranos, pero todos ellos con una gran experiencia. Junto a los bertsolaris navarros, en esta primera actuación participarán bertsolaris de Bizkaia, Gipuzkoa y Lapurdi. Cinco de ellos, tomaron parte el pasado año en el Campeonato Absoluto de Bertsolaris. El sexto ha sido campeón de Navarra de bertsolaris.*

## BERTSOAROA INFANTIL*

**10 de noviembre, sábado. 12:00 y 18:00 h.**
Salón de actos del Civivox San Jorge

- **Autor:** Jon Maia
- **Artistas**: Eneko Arrate y Eider Perez

***"Petresku, etzi ez etsi"***

*Numerosos jóvenes llegan a Euskal Herria con sus familias a emprender una nueva vida. Para ellos no es fácil integrarse en nuestras "cuadrillas". También es difícil que la gente de aquí entienda su experiencia. Esta es la historia de una de esas jóvenes: la rumana Laida. Gracias al humor, a los bertsos, al teatro y a la música y con la participación de todos, las cosas serán más fáciles para ella.*

* Programación Infantil en euskera.
Dirigido a público infantil de 5 a 11 años.

## RECITAL POÉTICO MUSICAL

**13 de noviembre, martes. 20:00 h.**
Patio del Civivox Condestable

- **Voces, guitarra y ukelele:** Ane Garcia
- **Saxo:** Itziar Castrillo
- **Voces:** Josu Landa
- **Voces y ukelele:** Gotzon Barandiaran

***"Parrapean"***
*Dos Parras: los hermanos Violeta y Nicanor. "Parrapean" es un recital compuesto con los cantos de una y los poemas del otro. Ambos son grandes creadores chilenos, referencia ineludible del siglo XX. Los años pasan, cambian los siglos, pero la obra de los genios permanece. Las reflexiones continuas sobre cómo se debe tratar la realidad desde el punto de vista cultural se refleja en la obra de estos grandes artistas y, por lo tanto, en este espectáculo poético-musical.*

## CIENCIA Y BERTSO

**15 de noviembre, jueves. 20:00 h.**
Civivox Iturrama

- **Bertsolaris:** Julio Soto, Jone Uria
- **Científicos/a:** Joseba Aldasoro, Miren Karmele Gómez, Marko Galarza
- **Presentador:** Kike Amonarriz

***"Jakinduriek mundue erreko dau"***
*La ciencia es una parte muy importante del legado cultural humano y sin conocer las bases de la ciencia nos perderíamos también una buena parte de nuestro patrimonio cultural, del que también forma parte el bertsolarismo. En esta actuación que conducirá Kike Amonarriz participan dos científicos, una científica y dos bertsolaris. Los primeros reflexionarán sobre asuntos científicos de actualidad y los bertsolaris pondrán rimas y melodías a los temas que vayan surgiendo.*

upna Universidad Pública de Navarra / Nafarroako Unibertsitate Publikoa — Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea — Kultura Zientifikoko Katedra / Cátedra Cultura Científica — STEM PLANETA

## ACTUACIÓN DE BERTSOLARIS JÓVENES

**20 de noviembre, martes. 20:00 h.**
Patio del Civivox Condestable

- **Bertsolaris:** Idoia Granizo, Irati Alcantarilla, Joanes Illarregi, Txaber Altube, Xabat Illarregi y Ane Zuazubiskar
- **Presentadora:** Ainhoa Larretxea

*También este año Bertsoaroa ofrecerá una muestra que recogerá las nuevas voces del bertsolarismo. Tres bertsolaris navarros y otros tantos de Gipuzkoa, Bizkaia y Lapurdi serán los representantes de la nueva generación del bertsolarismo. A lo largo de los últimos años estos jóvenes bertsolaris han participado en concursos, han cantado en diferentes escenarios, y muestran que el bertsolarismo tiene una cantera prometedora. Con ellos podremos disfrutar de parte del futuro del bertsolarismo, que ya es presente.*

## COLOQUIO

**22 de noviembre, jueves. 19:30 h.**
Civivox Iturrama

- **Participantes:** Alberto Irazu, Jon Maia
- **Presentadora:** Saioa Alkaiza

***"Bertsolarismo y rock"***
*En los últimos años ha sido fructífera la relación entre el bertsolarismo y la música rock, pero no ha sido siempre así. En otros tiempos, representaban dos mundos diferentes, apenas compartían seguidores y resultaba impensable una fusión entre ambos. De esto saben mucho las dos personas que participarán en la charla. Alberto Irazu, además de ser músico, ha escrito el libro "Rocka puntua!", en el que ha analizado pormenorizadamente la relación entre rock y bertsolarismo. Por su parte, el bertsolari Jon Maia ha creado varios proyectos musicales y ha trabajado con numerosos músicos.*

## ACTUACIÓN DE BERTSOLARIS

**27 de noviembre, martes. 20:00 h.**
Sala del Instituto de la Plaza de la Cruz

- **Bertsolaris:** Maialen Lujanbio, Miren Artetxe, Amets Arzallus, Aimar Karrika, Saioa Alkaiza y Unai Agirre.
- **Presentadora:** Maite Berriozabal

*La edición de este año de Bertsoaroa se cerrará también con una actuación de bertsolaris de primer nivel. Los dos últimos campeones de Euskal Herria, la actual y el de hace cuatro años, estarán sobre el escenario. Junto a ellos, bertsolaris de distintas generaciones que cuentan con una gran experiencia. Por lo tanto, convergerán diferentes estilos en la actuación con la que finalizará una nueva edición de Bertsoaroa.*

# BERTSOAROA 2018

Azaroaren **8**tik **27**ra

Ayuntamiento de Pamplona / Iruñeko Udala — Nafarroako bertsozale elkartea — Laguntzaile: Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra

## BERTSO SAIOA

**Azaroak 8, osteguna. 20:00**
Gurutzeko Plazako Institutuko Areto Nagusia

- **Bertsolariak:** Aitor Mendiluze, Nerea Ibarzabal, Eneko Lazkoz, Sustrai Colina, Miren Amuriza eta Julen Zelaieta.
- **Gai-jartzailea:** Alaitz Rekondo

*Bertso jaialdi batek emango dio hasiera, ohi bezala, aurtengo Bertsoaroari. Urteroko moduan, punta-puntako bertsolariak izango dira oholtzan, gazteak zein beteranoak, baina denak eskarmentu handikoak. Bertsolari nafarrekin batera, Lapurdi, Gipuzkoa eta Bizkaiko bertsolariak izango dira Bertsoaroaren lehenengo saioan. Horietako bostek iazko Bertsolari Txapelketa Nagusian hartu zuten parte, eta bik finalean kantatu zuten. Seigarrena Nafarroako txapelduna izana da.*

## HAUR BERTSOAROA*

**Azaroak 10, larunbata, 12:00 eta 18:00**
Sanduzelaiko Civivoxeko Aretoa

- **Egilea:** Jon Maia
- **Antzezleak**: Eneko Arrate eta Eider Perez

***"Petresku, etzi ez etsi"***

*Gaztetxo asko etortzen dira Euskal Herrira, beren familiekin, bizi berri bat hastera. Bertako eskolan, koadrilan integratzeko bidea ez da beti erraza izaten, ez eta bertakoentzat haien esperientzian barneratzea ere. Honako hau, horietako gaztetxo baten istorioa da, Laida errumaniarrarena. Umorearen, bertsoen, antzerkiaren eta musikaren laguntza eta denon partehartzearekin dena errezagoa izango da Laidarentzat.*

* Haur Programazioa euskaraz.
5 eta 11 urte tarteko haurrei zuzendua.

## ERRETIZALDI POETIKO MUSIKALA

**Azaroak 13, asteartea. 20:00**
Kondestablearen Jauregia Civivoxeko patioa

- **Ahotsa, gitarra, ukelelea**: Ane Garcia
- **Saxoa**: Itziar Castrillo
- **Ahotsa, ukelelea**: Gotzon Barandiaran
- **Ahotsa:** Josu Landa

***"Parrapean"***

*Parra bi: Violeta eta Nicanor neba-arrebak. Baten kantuez eta bestearen poemez osatutako errezitala da "Parrapean". Txileko sortzaile handiak bi-biak, hogeigarren mendeko erreferentzia ezinbestekoak. Urteak pasatzen dira, mendeak aldatzen dira, baina jenioen lanak bizirik dirau. Blaitzen gaituen errealitatea kultur sorkuntzaren ikuspegitik nola tratatu behar dugun etengabe egindako hausnarketek zipriztindutako bi artista handiren lanak gozatu ahal izango ditugu, parrapean.*

## ZIENTZIA ETA BERTSOA

**Azaroak 15, osteguna. 20:00**
Iturramako Civivoxa

- **Bertsolariak:** Julio Soto, Jone Uria
- **Zientzialariak:** Joseba Aldasoro, Miren Karmele Gómez, Marko Galarza
- **Aurkezlea:** Kike Amonarriz

***"Jakinduriek mundue erreko dau"***

*Zientzia da giza kulturaren zati handi bat eta zientziaren oinarriak ezagutu gabe kultur ondarearen zati hori gabe geldituko ginateke. Zientziaz gain, bertsolaritza ere euskal kulturaren ondare dugu. Bertsolaritzaren gakoa da "bizitza kantatzea" eta egunero jasotzen dugun gehiegizko informazioa liseritzen laguntzea doinua, errima eta neurriaren bitartez. Bien uztarketa da emanaldi hau. Kike Amonarrizek gidatuko duen "Jakinduriek mundue erreko dau!" emanaldian bi bertsolari eta hiru zientzialari izango dira oholtzan. Zientzialariek gaurkotasuna duen kontu zientifiko bati helduko diote eta bertsolariek bertsoak jarriko dizkiete gaiei.*

upna Universidad Pública de Navarra Nafarroako Unibertsitate Publikoa · Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea · Kultura Zientifikoko Katedra Cátedra Cultura Científica · STEM Planeta

## GAZTEEN BERTSO JAIALDIA

**Azaroak 20, asteartea. 20:00**
Kondestablearen Jauregia Civivoxeko patioa

- **Bertsolariak:** Idoia Granizo, Irati Alcantarilla, Joanes Illarregi, Txaber Altube, Xabat Illarregi eta Ane Zuazubiskar
- **Gai-jartzailea:** Ainhoa Larretxea

*Bertsolari gazteentzako saioa eskainiko du aurten ere Bertsoaroak. Aurtengoan, hiru bertsolari nafar, eta gipuzkoar, bizkaitar eta lapurtar bana arituko dira kantuan. Azken urteotan sariketetan, txapelketetan eta plazaz plaza trebatzen ari dira eta bertsolaritzaren harrobi oparoaren isla dira sei bertsolari hauek. Saio honetan, bertsolaritzaren etorkizunaz eta belaunaldi berrien bertsolaritzaz gozatzeko aukera izango dugu.*

## SOLASALDIA

**Azaroak 22, osteguna. 19:30**
Iturramako Civivoxa

- **Hizlariak:** Alberto Irazu, Jon Maia
- **Aurkezle:** Saioa Alkaiza

***"Bertsolaritza eta rocka"***

*Harreman emankorra izan dute azken urteotan bertsolaritzak eta rock musikak, baina ez da beti hala izan. Garai batean, oso bi mundu diferenteak ziren, zaleak apenas konpartitzen ez zituztenak eta pentsaezina bien arteko uztarketa. Horretaz asko dakite gaia jorratuko duten bi pertsonek. Alberto Irazu, musikaria izateaz gain, "Rocka puntua" liburuaren egilea da. Bertan bien arteko harremana xehe-xehe aztertu du. Jon Maia, berriz, bertsolari ezaguna da eta musika taldeak ere sortu ditu. Horrez gain, musikari askorekin lan egin izan du. Biek ala biek gai interesgarri honi helduko diote, Saioa Alkaizaren gidaritzapean.*

## BERTSO SAIOA

**Azaroak 27, asteartea. 20:00**
Gurutzeko Plazako Institutuko Areto Nagusia

- **Bertsolariak:** Maialen Lujanbio, Miren Artetxe, Amets Arzallus, Aimar Karrika, Saioa Alkaiza eta Unai Agirre.
- **Gai-jartzailea:** Maite Berriozabal

*Aurtengoan ere bertso saio batek itxiko du Bertsoaroaren egitaraua. Euskal Herriko azken bi txapeldunak, egungoa eta duela lau urtekoa, izango dira taula gainean. Haiekin batera, esperientzia handia duten zenbait belaunalditako bertsolariak. Bertsokera diferenteak entzuteko parada egongo da aurtengo Bertsoaroari amaiera biribila emango dion emanaldian.*

# BERTSOAROA 2018

del **8** al **27** de noviembre

Ayuntamiento de Pamplona Iruñeko Udala · Nafarroako bertsozale elkartea

Colabora
Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra